

# HERRIZ HERRI, ABERRI!

## ABERRI EGUNA 2015

APIRILAK 5

SABINO ARANA
1865 · 2015

eaj
pnv

eaj-pnv.eus

Geure burua euskal abertzale jotzen dugunok igandean ospatuko dugu Aberri eguna, gure aberriaren egun handia. Eta, hala ospatzen dugu, gure herriaren gehiengo sozial eta politiko zabala ordezkatzen dugun arren, orain arte ez dugulako lortu izan nazioarte mailako ordenamendu juridikoan gure nazio nortasuna behar bezala aitortua izatea. Horregatik gaude tematuta, eta helburu demokratikoa dugu, euskal nortasun berezitua aitortua izan dadila herritarren gehiengoaren borondatean oinarri, beren berezitasun instituzional eta politikoa normaltasun osoz adierazten duten beste erkidegoen maila berean.

Euskal Herria, Euskadiren egitasmo politikoan egituratua, nazio izatea nahi dugu, Europar beste nazioek osatzen duten maparen baitan. Euskal herritarren borondatea errespetatua izan dadila eta, horren ondorioz, bere antolaketa instituzionala eta juridikoa egituratzeko aukera izan dezan, herrien autodeterminazio eskubidearen nazioarteko printzipioaren markoan.

Euskal aberriaren aldarriak ez dakar beste errealitate batzuk ukatzea. Hizkuntza, kultura, tradizioa eta historia partekatzen duelako, balore partekatuak dituen elkargoaren borondateari lotzen zaio. Ezaugarri horiek dira, hain zuzen ere, zuzenbide alderatuak kontuan hartzen dituenak, herrialde propioa duen erkidegoa identifikatzeko orduan. Eta berezko balorea ere badute, osagai horiek guztiek sostengatzen dutelako hiritargo batek nortasun propioa duen eta besteengandik ezberdina den erkidego gisa bere etorkizuna partekatzeko duen borondatea.

Euskal abertzaletasuna, beraz, ez da ezeren edo inoren kontra egiteko mugimendu bat. Nortasun propioa aldarrikatzeko apustu irmoa da. Kanpotik etor daitekeen laguntzari edo lankidetzari uko egin gabe. Baina, hori bai, berdinen arteko abiapuntu batetik sortzen den egoeran, eta inoiz ere mendekotasun harremanaren baldintzapean edo besteren batek emandako subiranotasunean oinarrituta.

Euskal Herriaren kausa ez da gauetik egunera sortu den zerbait, ez da egun bakarreko lorea. Pirinio mendien iparraldean ere, Frantziar Iraultzaren ondorioz ezarri ziren sistema jakobitarrak eta Estatu-Nazioak errotik erauzi zuten Iparraldeko euskal herritarrek mendeetan beren gizartea arautzeko izan zuten sistema. Hegoaldean, ordea, XIX. mendean, bi guda ankerren ondoren ,foruak indargabetu ziren eta euskal herrialdeak 'monarkiaren batasun konstituzionalaren pean' integratu ziren.

Ordutik aurrera dago 'euskal auzia' izenarekin ezagutu dena. Kontzeptu hori, Europa eraikitzen ari zen denboran ezarri zen naziotasun printzipioaren eskemaren arabera, planteamendu berritzaileekin aurkeztu zen eta nazio kontzeptu berria sortu zen. Eskubide subjektu berria "Euskadi euskotarren aberria da" baieztapenaren bidez adierazi zena.

Atzera begiratzen dugu nondik gatozen ez ahazteko. Oraindik zabalik dagoen eta demokratikoki sendatu behar den zauriaren jatorria ulertzeko.

1932 urtean, euskal abertzaletasunak, euskal hiritargoaren nazio kontzientzia iratzartzeko asmoarekin, euskal nazioaren lehen elkarretaratzea antolatu zuen. Lehen 'Aberri Eguna' izan zen. Pazko igandez egin zen, berpizkundearen sinbolo gisa. Ordutik aurrera, urterik urtera, euskal abertzaleok egutegian mantentzen dugu aldarrikapen hori egiteko eguna. Askatasun denboretan egin genuen, guda garaian, jazarriak izan ginenean eta

demokrazia itzuli zenean. Urte bakoitzean izan du bere ñabardura, bere proposamen zehatza, unean uneko beharraren edo egutegi politiko, ekonomiko edo sozialaren araberakoa.

Are gehiago, aldi honetan guztian, Euskal Aberriaren eguna euskal emakume eta gizonentzat izan da oraindik lortu ez den zerbaiten adierazpena. Euskal Aberriak bere aitortza eta adierazpen osoa lortuko duen egunaren zain dagoen herriaren adierazpena.

Gaur egun, XXI. Mendeko bigarren hamarkadaren erdialdean, Euskal Aberria ospatzen segitzen dugu eta lortu ez dugun zerbaiten aldarria egiten dugu. Oraindik ukatua zaigun nazio normalizatua dugu helburu.

Euzko Alderdi Jeltzaleak ez du amore emango Euskadi Europan eta mundu osoan nazio izan arte.

Asko aurreratu dugu hori egingarri egiteko eta, batzuetan, egoera ikuspuntu laburretik begiratzeagatik, erdietsi ditugun lorpenen aitortza zail egin dakigukeen arren, aurrera emandako urratsak esanguratsuak eta handiak izan dira. Ez gara hutsetik hasiko eta gure asmoa ez da orain arte egindakoa desagerraraztea, dena asmatuko den denbora berria hasten saiatzeko.

Ez dago, beraz, ezkor izaterik edo ezkortasunak gidatzea uzterik. Egia da gure gizartean, gure inguruko hainbat pertsonek krisi ekonomikoaren zartako gogorrak sufritu dituztela, gure herriaren garapenak geldialdi handia pairatu duela eta gizakiaren hazkunde jasangarriaren elementu askok arazoei aurre egin behar izan diotela. Baina, gure inguruari begiratuta, erraz ikusiko dugu azken urteotan eraiki ditugun autogobernu tresnei esker, besteek baino hobeto egin diegula aurre une bakoitzean kontra egin dizkiguten erronkei. Autogobernuaren alde egin genuen apustuari esker eraiki genituen ongizate zerbitzuen harresiek eutsi egin diote egoerari. Baliabide publikoak mugatuak izan diren arren.

Eta hori egin ahal izan dugu herri honek ondo ulertu duelako nazio eraikuntzak, autogobernuak, ongizate sinonimoa izan behar duela, duintasun eta bizitza kalitatearen sinonimoa. Guk nahi dugun aberria izango da aberria osatzen duten pertsonak babestuta sentitzen badira eta norbanakoaren eta taldearen zoriontasun bidean laguntasuna dutela sentitzen badute.

Euskal aberria ez da definizio abstraktua, ezta asmakizun politikoa ere. Euskadiri lotuak sentitzen diren milaka emakume eta gizonen itxaropenak biltzen dituen benetako jomuga da. Eta, horrela, abertzale ororen egiteko nagusia da denon etxe hori topagune eta solidariotasun esparru gisa eraikitzea; ahulenentzako babes gisa, esparru ekonomikoa eta justizia soziala adiskidetzen diren toki gisa.

Emakume eta gizonen arteko parekidetasun jomuga gisa ere bai, etorkinak erabat integratuta biziko diren esparru gisa. Herritarrok hori dena esparru politikotik jasotzeko eskubidea dugu eta, Alderdi gisa, derrigorrezko dugu lortzea euskal gizarteak gurekin izan dezan amore ez emateko arrazoia, krisitik irteteko bidea, autogobernurako bidean aurrera egiteko, behin betiko bakea lortzeko, elkarren arteko bizikidetza anitza lortzeko.

Euzko Alderdi Jeltzaleak helburu horiei behar bezala erantzungo die bere nortasunarekiko leiala izaten segitzen badu, bere historiarekiko leiala bada, alde batera edo bestera begiratzen geratu gabe.

Nahasmen handiko denborak bizi ditugu, baloreak desitxuratu eta indargabetu diren eta konfiantza galdu den garaietan aurkitzen gara. Aldaketa denborak, eragile berriak azaleratzen dira eta jokabide okerrek gidatutako eskemak desagerrarazi behar dira.

Antzeman daitekeen eraldaketa esparru horretan, aldi berean ematen dira biziirauteko helburua besterik ez dutenen estrategia eta, zilegi den bezala, gu ordezkatzera datozenenena.

Zarata dago, zarata handia, eta aldaketa zantzuak antzeman daitezke politikan eta gizarte osoan. Inork ere ezin du zein neurritarainokoa izango den, ezta nora eramango gaituen ere.

Aurkezten zaigun urte hau bereziki esanguratsua izango da gure etorkizun politikorako. Herri gisa ukituko gaitu, eta Alderdi gisa ere bai.

Hilabete gutxiren buruan, hauteskundeak bata bestearen segidan etorriko zaizkigu. Horietan guztietan neurtuko da hiritargoak herritarrak ordezkatzen dituzten indar politikoengan duen konfiantza. Udal hauteskundeak izango ditugu maiatzean, eta urteko azken hiruhilekoan helduko dira Espainiako hauteskundeak, eta oraindik ez dakigu horrek guztiak balore krisian, gobernu krisian, lurralde kohesio krisian eta lidergo politiko krisi sakonean murgilduta dagoen Estatuari nola eragingo dion.

Lehenengo zedarria izango da toki eta herrialde gobernuak aldatu beharrari dagokiona. Herriaren itxura aldatuko da Udaletan, Batzar Nagusietan eta Aldundietan. Eta hauteskundeetan herritarren konfiantza lortuko duena izan daitekeenaren gainetik, egitasmo publikoen kudeaketa onean aurrera egiten segitzeko egitasmoetatik harago, lidergo oreka berria inposatuko da eta, aurreikuspenen arabera, aukera abertzaleak indartuko dira. Egoera horretan ere, aukera horien arteko borroka zatiketa politiko handiago batek baldintzatuta egongo da.

Nafarroako Foru Erkidegoaren kasuan, hauteskunde hauek eramango gaituzte historia hurbilean parekorik izan ez duen ziklo aldaketara. Hainbat urteren buruan, lehen aldiz, Erresuma Zaharrean euskalduntasunaren isolamendua eragin duen erregimena sostengatu duten indar politikoek betoa ezartzeko izan duten gaitasuna gal dezakete, erkidego haren eta euskal kolektibitate osoaren arteko irekitze eta hurbilketa denbora berrirako atea irekiz.

Euzko Alderdi Jeltzaleak, Nafarroan eta Euskadi osoan, herritarren erabaki eskubidea errespetatu izan du beti. Herri bat osatzen dugula pentsatu arren, nortasun aldetik gure artean eman daitezkeen ezberdintasun logikoen gainetik, sustrai berberak eta kultur, hizkuntza eta familia loturak ditugula sentitu arren. Horrela bada ere, nafar emakume eta gizonek beren etorkizuna erabakitzeko duten eskubide ukaezina errespetatzen dugu. Nafarroak erabaki du eta erabakiko du. Han bizi eta lan egiten duten pertsonei aitortzen diegu sentitzeko eta beren nortasuna edo nortasunak erabakitzeko eskubidea, gaur eta bihar eraiki nahiko duten bizitza proiektua irudikatzeko eta diseinatzeko eskubidea. Eta eszenatoki demokratiko hori, leiho hori, gure denbora honetan lehen aldiz, zabal zabalik egongo da maiatzean.

Euzko Alderdi Jeltzaleak espero du leiho hori hiritarren borondatez zabaldu ahal izatea, alde bateko eta besteko euskal herritarrak elkarri bizkarra emanda bizitzera kondenatu gaituen begizkoa apurtuz. Obanoseko infantzoien goiburua berpiztuko duen bidea “Pro libertate

patria, gens libera state" ("Gizabanako askeak aberri askean").

Euskal Autonomi Erkidegoari dagokionez, udal eta foru hauteskundeek aldi berean ekarriko dute aliantza mapa berria ezartzeko beharra, epe laburrean aurkeztuko zaizkigun erronkei segurtasunez eta adostasunez ekiteko egoera egokia sortuko duen egonkortasun instituzionala ekarriko duena.

Alde batetik, krisi ekonomikotik eraginkortasunez eta urrats sendoz irtetea. Gure sare produktiboa finkatuz eta hazteko aukera berriak bilatuz, enplegua sortzeko, aberastasuna sortarazteko, aberastasun hori denon artean banatzeko. Krisitik irtetea prozesu ekonomikoen ardatz nagusia pertsona dela ahaztu gabe.

Bigarrenez, gure aurrean aurkezten zaigu bake eta bizikidetza aurreikuspenak finkatzeko beharra. Bakea indarkeriarik eza baino askoz gehiago da, eta bizikidetza ez da soilik bata bestearen ondoan bizitzea.

Urteotan amestu ondoren, euskal gizarteak bere aurrean dauka bere historian, hamarkada luzeren buruan lehen aldiz, ziklo berria zabaltzeko aukera. Bakezko bizikidetza gozatzeko benetako aukera antzematen dugu. Baina orrialde berria, kapitulu berria idazteko, ezinbestekoa da lehenagokoa behar bezala ixtea, iragan mingarriaren ondorioak gaindituz eta iragan horretatik ikasi beharko dugula argi izanik, euskal herritarren beste belaunaldirik egon ez dadin, Herri honek bizi izan duen sufrimenduaren pean egongo denik.

Orrialde hori ixteak eta orrialde berria irekitzeak inposatuko digu konpromiso partekatuak hartzea eta bakoitzak bere aldetik erabakiak hartzea eta erabaki horiek laguntzea, Espainiar Gobernuaren blokeoak edo gelditasunak Euskadik bizi izan duen indarrezko amesgaiztoari eta bere ondorio mingarriei amaiera ematea eragotzi ez dezaten.

Zentzu horretan, Euzko Alderdi Jeltzaleak bere jardun politikoa elkartasun aukera berri hori lortzera bideratzeko konpromisoa hartuko du, elkar ulertzeko esparru berria lortzeko; ildo hori bideratuta, zauria orbanduta, Euskal Aberriak etorkizunera begira izango duen askatasun bidea irekiagoa eta ibiltzen errazagoa izango delako.

Askatasun maila berriak bilatzea, Euskadirentzako autogobernu berria bilatzea izango da, bizi dugun egoerari begira, hurrengo hilabeteotan borrokatu beharko dugun hurrengo erronka. Beste behin ere, behar bezain buru argiak izan beharko dugu gure autogobernua euskal herriak adieraziko duen borondatera moldatzeko aukerak eta proposamenak publiko egiteko denborak ondo kudeatzen jakin dezagun.

Zentzu honetan ez dugu ahaztu behar, Euskadi nazioaren aitortzarako marko juridiko politiko berriak aurkitzeko bidegurutzean, aldi berean espainiar Estatuaren baitan eman daitezkeen aldaketak antzematen direla. Hauteskundeak izango dira urte bukaeran, eta horien arabera, hauteskundeek eragingo dituzten aldaketa politikoen ondorioz, aukerak edo oztopo berriak ere sor daitezke, Euskadirentzako estatus politiko berria zehazteko dugun asmoa erraztu edo eragotziko digutenak.

2015eko Aberri egun honetan hurbil sentitzen dugu euskal herritarrok gure hazkunde nazionalarekiko jarrerak zehaztu beharko dugun momentua. Gure historia luzeak erakusten digu nazio eraikuntza ez dela egun eta leku zehatz



batean egiten den zerbait. Aberria egunez egun eraikitzen da, urtez urte. “Herriz herri”, aurtengo Aberri Eguna ospatzeko aukeratu dugun goiburuak adierazten duen legez.

“Dena ala ezer ere ez” helburuari begiratzeko tentaldian erortzea ez litzateke bat ere serioa edo zentzuduna izango. Eraikita dagoen oinarriari uko egitea ere ez dator bat gure lanarekin edo gure jokamolde politikoarekin. Guztiz alderantziz, ondo sustraituta dugun autogobernuak izan beharko du etorkizunerako aukera politiko berriak horren gainean eraikitzeko oinarria.

Beraz, gure oraingo ‘statu quo’-a mehatxatzen duten asmo zentralizatzaileek edo batzuek Espainian marrazten hasia den eredu instituzionalean diseinatzen hasi diren asmo federalista eta homogeneitzatzaileek ez dute gure oniritzia jasoko. Guztiz alderantziz, kontra izango gaituzte.

EAJ-k elkarbizitza politikoaren alde mahai gainean jartzeko prest dagoen akordioaren abiapuntua izango da, ezinbestean, Euskadi nazioaren aitortza, akordioa, berdinen arteko akordioa mendekotasunari ematen zaion erantzun gisa; aldebikotasun eraginkorra, arbitraje konpentsaturako tresnak ezarriz; eta, azken puntu gisa, Euskal Herriaren erabaki eskubidea instituzionalizatzea eta legez babestea, ondorioz sortuko den estatus politikoa eta etorkizunean egingo diren aldarazpenak balioesteko elementu gisa.

Aurreko urteko aberri egunean Europak aurkezten digun erronka aipatu genuen, batasunaren egitura moldatzeko beharra zegoela esan genuen, mendebaldeko gizarteen inguruan hazten ziren arazo handiei sen onez eta eraginkortasunez ekiteko. Eskoziari eta Catalunyari begiratu genien eta nazio bi horietan eman ziren prozesu nazionalen jarraipen hurbila egin genuen. Horiek une guztiek dute beren xedea, beren garrantzia, beren eragina.

Ez dugu inor gutxietsiko, baina euskal hiritarroi gaur aurkezten zaigun garaia bizia eta bizigarria da. Eta ez bakarrik hauteskundeak hurbil ditugulako. Hauteskundeak beti dira garrantzitsuak, are gehiago herritar gehienen konfiantza izaten segitu nahi duenarentzat. Hauteskundeak bereziki garrantzitsuak dira eragiten dituzten aldaketa sozial eta politikoengatik, beren ondorioek gizarte osoarentzat ekar dezaketen eraginagatik. Hazkunde ekonomikorako eta enplegua sortzeko bidera itzuli nahi dugu, bakea finkatu nahi dugu eta elkarbizitzeko aldi berria eta giza eskubideak errespetatuak izango diren denbora berria ireki nahi dugu eta, horrez gain, Estatu egiturak indartu beharko ditugu elkargo homogeneo gisa bizirauteko, aitortua izango den elkargoa izateko. Egunez egun askeago izateko. Nazio izateko. Euskadi izateko. Gero eta gehiago.

Euskal abertzaleoi aldi honetan aurkezten zaigu aurreikuspen horiei guztiei erantzuteko derrigorra. Herri honetan milaka pertsona dira beren konfiantza gugan jarri dutenak. Askorentzat, gu gara itxaropentsu egoteko arrazoia, bakarrak garela pentsatzen ez dugun arren, Euskadiren askatasun nazional eta sozialerako tresnarik onena garela uste dugulako. Esan iezaiegu beti egon garen toki berean gaudela. Aberriaren zerbitzura gauden emakumeak eta gizonak garela. Pertsonen zerbitzura, familien, auzoen, herrien zerbitzura. Euskadiren aldaketaren zerbitzura. Herriz herri, Aberri!

## Gora Euskadi Askatuta!

Euskadin, 2015eko apirilaren 5ean



# HERRIZ HERRI, ABERRI!

## ABERRI EGUNA 2015

5 DE ABRIL

SABINO ARANA 1865 · 2015

eaj pnv

eaj-pnv.eus

Quienes nos confesamos nacionalistas vascos celebraremos el próximo domingo el Aberri Eguna, el Día de la Patria. Lo hacemos porque, a pesar de representar a una mayoría social y política de nuestro país, no hemos obtenido el reconocimiento expreso de nuestro carácter nacional en el orden jurídico internacional. De ahí nuestra obstinación democrática para que el hecho diferencial vasco, sustentado en la voluntad mayoritaria de su ciudadanía, obtenga el respeto de nuestra nacionalidad en pie de igualdad con el resto de comunidades que, de forma normalizada, expresan su singularidad institucional y política.

Queremos, por lo tanto, que el Pueblo Vasco, articulado bajo el proyecto político de Euskadi, sea contemplado como una nación más del mapa de naciones europeas. Que se respete la voluntad de su ciudadanía y que, fruto de la misma, pueda articular su organización institucional y jurídica en el marco del principio internacional del derecho a la libre autodeterminación de los pueblos.

La reivindicación de la nación vasca no se asienta en la negación de otras realidades existentes. Se sustenta en la vocación íntima de voluntad de una colectividad que se ve reconocida en valores comunes de lengua, de cultura, de tradición, de historia. Rasgos todos ellos que, a la luz del derecho comparado, identifican a una colectividad con territorio propio. Y que obtienen valor cualitativo cuando todos esos componentes, además, recogen el positivo impulso de la ciudadanía de compartir un futuro común como comunidad propia y diferente a las demás.

El nacionalismo vasco no es por lo tanto un movimiento contra nada o contra nadie. Es la apuesta firme y decidida por marcar un impulso vital propio. Sin renunciar a la cooperación y colaboración externa. Pero desde un punto de partida de igualdad y nunca de subordinación o de soberanía otorgada.

La causa del Pueblo Vasco no es una cuestión que surja hoy ni que sea flor de un día. El establecimiento del sistema jacobino y el imperio del Estado-Nación tras la Revolución Francesa deshicieron, al norte de los Pirineos, el sistema tradicional de convivencia que secularmente los vascos continentales habían adoptado para sí mismos. Al sur, fueron las leyes abolitorias del sistema foral, tras dos cruentas guerras, las que en el siglo XIX incorporaron a los territorios vascos a la nueva "unidad constitucional de la monarquía".

Desde entonces existe lo que se ha conocido como 'problema vasco'. Una cuestión que, reformulada bajo el esquema del principio de las nacionalidades establecido en la Europa en construcción, se vio innovada en sus planteamientos con un nuevo concepto nacional, un nuevo sujeto de derechos explicitado en la afirmación de que "Euskadi es la patria de los vascos".

Miramos hacia atrás para no olvidar de dónde venimos. Para contextualizar el origen de un problema aún abierto y que exige su resolución democrática.

En el año 1932, el nacionalismo vasco, centrado en despertar la conciencia nacional de la ciudadanía, organizó el primer encuentro de la nación vasca. Fue el primer 'Aberri Eguna' o 'Día de la Patria'. Lo hizo emblemáticamente, el Domingo de Pascua, como símbolo de la resurrección. Desde entonces, año tras año, los nacionalistas vascos mantenemos en el calendario tal reclamación. Lo hicimos en libertad, en la guerra, en la persecución y en el retorno de la democracia. Cada año tenía su connotación, su propuesta coyuntural, su visión inmediata de la necesidad o del calendario político, económico o social.

Mas, en todo ese tiempo, el Día de la Patria Vasca siempre fue para generaciones de mujeres y hombres la expresión de un anhelo no alcanzado. Del afán siempre pendiente de que, por fin, la Patria Vasca alcanzara su reconocimiento y expresión.

Hoy, a mediados del segundo decenio del siglo XXI, seguimos conmemorando el Día de la Patria Vasca desde esa reivindicación no alcanzada. Desde esa meta de normalización nacional que se nos niega.

El Partido Nacionalista Vasco no cejará en su empeño hasta que Euskadi alcance su plenitud como nación en Europa y en el mundo.

Hemos avanzado mucho para hacerlo posible y aunque, en ocasiones, la falta de perspectiva, motivada por contemplar el panorama desde el plano corto, nos impida hacer un reconocimiento amplio de los logros obtenidos, éstos han sido relevantes y notorios. No partimos de cero ni es nuestra intención hacer tabla rasa, intentando inaugurar un nuevo tiempo en que todo se inventa.

No cabe, por lo tanto, ser pesimistas ni ser arrastrados por la fatalidad. Bien es cierto que nuestra sociedad y muchas personas de nuestro entorno han sido golpeadas por la crisis económica, que nuestro desarrollo como país ha sufrido un parón y que muchos de los elementos básicos de crecimiento humano sostenible se han resistido ante el empuje de las adversidades. Pero si miramos a nuestro entorno, sabremos identificar que gracias a las herramientas de autogobierno edificadas en estos últimos años hemos sabido resistir mejor que los demás ante los enormes desafíos a los que nos hemos tenido que enfrentar. Los muros de contención de los servicios básicos del Estado de bienestar que cimentamos gracias a la apuesta por el autogobierno han resistido. A pesar de los limitados recursos públicos.

Y eso ha sido posible porque este país ha entendido que la construcción nacional, que el autogobierno, debe ser un sinónimo de bienestar, de dignidad y de calidad de vida. Porque la patria que queremos sólo tiene sentido si en ella quienes la conforman se sienten amparados y acompañados en una búsqueda de felicidad personal y colectiva.

La nación vasca no es una definición abstracta, ni un invento político. Es el horizonte cierto en el que tienen cabida las esperanzas de la sociedad vasca. Por ello, nuestro compromiso, el del Partido Nacionalista Vasco, es el de ser capaces de construirla como un espacio de encuentro y de solidaridad, como una promesa para los más débiles, como un lugar de reconciliación entre lo económico y la justicia social. Como un horizonte de plena igualdad entre hombres y mujeres. Como un espacio de integración para los inmigrantes. En tanto que ciudadanos y ciudadanas, tenemos derecho a esperar todo esto de la política, y como Partido tenemos la obligación de seguir contribuyendo a que la sociedad vasca encuentre en nosotros un motivo firme para no desesperar, para salir de la crisis, para avanzar efectivamente hacia el autogobierno, para la paz definitiva, para la convivencia plural.

El Partido Nacionalista Vasco responderá adecuadamente a estos objetivos si lo hace siendo fiel a su propia identidad, a su propia historia, sin necesidad de mirar a uno y otro lado.

Vivimos tiempos de confusión. De crisis de valores, de crisis de confianza. Tiempos de cambio, de nuevos actores y de agonía de esquemas lastrados por conductas improcedentes.

En ese espacio de transformación que se adivina, se conjuntan estrategias de quienes sim-

plemente pretenden sobrevivir y de quienes, legítimamente, desean sustituirnos.

Hay ruido, mucho ruido, y un trasfondo de cambio político y social que nadie sabe su calado ni a dónde nos conducirá.

El año que acontece se presenta por lo tanto especialmente trascendente en nuestro devenir político. Como País, y también a nosotros como partido.

En escasos meses, seremos protagonistas de una concatenada sucesión de encuentros electorales. En ellos se dirimirá la confianza que la ciudadanía mantiene en las formaciones políticas que la representan. Asistiremos a las elecciones municipales y locales en la proximidad de mayo, y en el último trimestre del año llegarán los comicios españoles, con sus inciertas consecuencias para un Estado sumido en una crisis de valores, de gobernanza, de cohesión territorial y de liderazgo político.

El primer hito al que nos enfrentaremos será el relativo a la renovación de los gobiernos locales y territoriales. La fisonomía política del país va a cambiar en Ayuntamientos, Juntas Generales y Diputaciones. Y más allá de quién o quiénes alcancen la confianza de los electores, de sus programas para seguir avanzando en la buena gestión de los programas públicos, se impondrá un nuevo equilibrio de liderazgo en el que, previsiblemente, las opciones de ámbito nacionalista recobrarán fortaleza y en el que la pugna entre las dos formaciones abertzales se verá condicionada por una mayor fragmentación política.

En el caso de la Comunidad Foral Navarra, este encuentro electoral nos acerca a un cambio de ciclo sin parangón en la historia reciente. Por primera vez en los últimos años, las fuerzas políticas que han sostenido el régimen del aislamiento vasquista en el Viejo Reyno podrán perder su capacidad de veto, abriendo la puerta también a un nuevo tiempo de oportunidad de apertura y de acercamiento entre aquella comunidad y el resto de la colectividad vasca.

El Partido Nacionalista Vasco siempre ha respetado, en Navarra y en el conjunto de Euskadi, el derecho a decidir de la ciudadanía. Aun pensando que formamos parte de un único Pueblo, de un todo en el que, salvadas las diferencias lógicas que se dan en la pluralidad de caracteres, nos vinculan raíces comunes y vínculos culturales, lingüísticos e incluso familiares que nos hacen sentirnos unidos. Aun así, respetamos el derecho inalienable de los navarros y las navarras a decidir por sí mismos su porvenir. Navarra es y será sujeto de decisión. Capacidad de empoderamiento de las personas que allí viven y trabajan para defender una manera de sentirse, para determinar sobre su identidad o identidades, para imaginar el proyecto de vida que quieran forjarse hoy y también mañana. Y ese escenario democrático, inédito en nuestro tiempo, se abre de par en par a partir del próximo mes de mayo.

El Partido Nacionalista Vasco confía en que esa ventana a la esperanza pueda abrirse por el impulso de la voluntad de la ciudadanía, rompiendo el maleficio de que vascos de un lado y de otro sigan condenados a vivir de espaldas unos de otros. Respetándose entre sí y colaborando en construir una nueva realidad en la que compartir vivencias nos haga ser más libres. Que haga resurgir la vitola de los infanzones de Obanos: “Pro libertate patria, gens libera state” (“Hombres libres en una patria libre”).

En lo que se refiere a la Comunidad Autónoma Vasca, el reto municipal y foral traerá de

manera implícita la necesidad de establecer un nuevo mapa de alianzas que posibilite una estabilidad institucional que genere el caldo de cultivo necesario para abordar con seguridad y consenso amplio los retos inminentes a los que deberemos responder.

Por un lado, la salida eficaz y firme de la crisis económica. Consolidando nuestro tejido productivo y encontrando oportunidades para crecer, para crear empleo, para generar riqueza que luego seamos capaces de repartir. Salir de la crisis sin olvidar que los procesos económicos deben tener como eje central a las personas.

En segundo término, tenemos ante nosotros la imperiosa necesidad de consolidar las expectativas de paz y de la convivencia. La paz es mucho más que la ausencia de violencia, y convivir no es sinónimo de coexistir.

Después de haberlo soñado durante años, la sociedad vasca tiene ante sí la oportunidad de abrir un nuevo ciclo en su historia en el que, por primera vez en décadas, se vislumbra la posibilidad real de disfrutar de una convivencia en paz. Pero para escribir una nueva página, un nuevo capítulo, es preciso cerrar convenientemente el anterior, superando las consecuencias de un doloroso pasado del que deberemos aprender para que, en adelante, ninguna generación de vascos y vascas se vuelva a ver sometida al sufrimiento que de forma global ha padecido este Pueblo.

Cerrar esta página y abrir una nueva nos impondrá compromisos compartidos y decisiones unilaterales con acompañamiento, de manera que ni el bloqueo ni la inacción del Gobierno español impidan avanzar y concluir de una manera ordenada con la pesadilla de la violencia en Euskadi y sus consecuencias de dolor y sufrimiento.

En tal sentido, el Partido Nacionalista Vasco está firmemente decidido a comprometer su acción política en la conquista de esta nueva oportunidad de concordia, de nuevo entendimiento, porque encauzado este camino, cicatrizado el pasado, el futuro en la libertad de la Patria Vasca resultará mucho más abierto y fácilmente transitable.

La búsqueda de nuevas cotas de libertad, de autogobierno para Euskadi es, en este somero análisis de coyuntura, el siguiente desafío con el que deberemos pugnar en estos meses. Deberemos ser, una vez más, inteligentes para saber gestionar nuestras opciones y los tiempos en los que hagamos públicas nuestras propuestas para adecuar nuestro autogobierno a la voluntad que reclame la sociedad vasca.

En este sentido, no hemos de olvidar que, en esa encrucijada por encontrar nuevos marcos jurídico-políticos en los que acomodar el reconocimiento nacional de Euskadi, se vislumbran igualmente presumibles cambios en el Estado español. Elecciones a fin de año y dependiendo de ellas, de las variaciones políticas que se produzcan, oportunidades y contratiempos que allanen o dificulten nuestras pretensiones por avanzar en definir un nuevo estatus político para Euskadi.

En este Aberri Eguna 2015, se siente ya próximo el momento en el que los vascos debamos fijar posiciones en relación a nuestro crecimiento nacional. Nuestra dilatada historia nos enseña que la construcción nacional no es una tarea de actos unívocos. Se construye país día a día, año a año. “Herriz herri”, como indica el lema bajo el que conmemoramos la edición de este Aberri Eguna.

Caer en la tentación del “todo o nada” no es una pretensión seria ni inteligente. Renunciar

al suelo edificado tampoco va con nuestro trabajo ni con nuestra acción política. Al contrario, nuestro autogobierno ya consolidado debe ser el punto de partida sobre el que proyectar las nuevas opciones de futuro.

Por lo tanto, ni las tentativas recentralizadoras que amenazan nuestro 'statu quo' actual, ni las pretensiones federalizantes homogeneizadoras que algunos diseñan en ese cambio de modelo institucional que comienza a dibujarse en España, contarán con nuestra aprobación. Al contrario, nos tendrán enfrente.

El punto de salida de ese nuevo acuerdo por la convivencia política que el PNV está dispuesto a poner encima de la mesa pasa por el reconocimiento nacional de Euskadi; el acuerdo, el pacto entre iguales como respuesta a la subordinación; por la bilateralidad efectiva con el establecimiento de mecanismos de arbitraje compensados; y, en último extremo, por la institucionalización y el amparo legal del derecho a decidir del Pueblo Vasco como elemento de validación del nuevo estatus político resultante, así como de las modificaciones o alteraciones futuras.

El pasado año mencionábamos el reto europeo, la necesidad de una adecuación de las estructuras comunitarias, para poder atender con sensatez y eficacia los grandes problemas que se cernían alrededor de las sociedades occidentales. Mirábamos a Escocia, a Catalunya, cuyos procesos nacionales seguíamos con verdadera pasión y apoyo. Todos los momentos tienen su afán, su relevancia, su impacto.

Sin menospreciar a otros, el tiempo que hoy se nos presenta a los vascos resulta apasionante. No por la trascendencia de unos comicios próximos. Las elecciones siempre son importantes, y más para quien quiere seguir contando con la confianza mayoritaria de la ciudadanía. Las elecciones son especialmente trascendentes por los cambios sociales y políticos, por el impacto que sus consecuencias pueden tener para el conjunto de la sociedad, para un país como el nuestro que aspira a recuperar el crecimiento y el empleo, que confía en consolidar la paz y abrir un nuevo tiempo de convivencia y respeto a los Derechos Humanos, y que, además, necesita refortalecer sus estructuras de Estado para sobrevivir como colectividad homogénea y reconocible. Ser cada día menos dependiente. Más nación. Más Euskadi.

Los nacionalistas vascos tenemos en este tiempo el deber de responder a todas estas expectativas. Hay miles de personas en este país que confían en nosotros. Para muchos, somos motivo de esperanza, pues sin considerar que somos los únicos, representamos el mejor instrumento para la liberación nacional y social de Euskadi. Garanticémosles que seguimos estando donde estábamos. Siendo mujeres y hombres al servicio de la patria. Al servicio de las personas, de las familias, de los barrios, de los pueblos. De la transformación de Euskadi. Herriz Herri, Aberri!

## Gora Euskadi Askatuta!

En Euskadi a 5 de abril de 2015